



***Nagusientzako
gimnasia-
aparatuak***

/2. orrialdea

***Muskizek
850.000 euro
bideratuko
ditu enplegua
bultzatzeko***

/3. orrialdea

***Igogailua
jarriko da La
Cendeja eta
Antonio Trueba
lotzeko***

/5. orrialdea

***Mendiz Mendi
Taldea***

/6. orrialdea

Editoriala

Herritarren parte-hartzea

Urte berria hastera goaz, eta iragarpenek diotenez, aurtengoa ere zaila izango da. Beraz, aurten ere zailtasunei aurre egiteko modurik onena kezka sortzen diguten gaiak lantzea izango da: enplegua, zerbitzuak mantentzea... eta Muskiz hobetzen jarraitzea.

Politika aktiboen arloko neurriak hartzen hasi gara, enplegu-hazkundearen alde ekiteko; besteak beste, prestakuntzari aurre egin nahi diogu Somorrostroko Hezkuntza Zentroarekin batera, 40 lanpostu kontratatzeke plana bideratu dugu Lanbide eta Udalaren artean, eta zuzeneko laguntza berriak kudeatuko ditugu kontratazio eta ekintzailetzarako.

“2012an herritarrekin komunikatzeko bide berriak zabalduko ditugu”

Eta neurri berriak hartzeko asmo hauen ildotik, komunikazio bide berri bat abiaraziko dugu Muskizko herritarrekin. Udala erakunde hurbila izatea nahi dugu, Muskiztarrak behar bezala informatuta egon daitezen udal arazoei buruz. Helburu horrekin urtean lau aldizkari argitaratuko ditugu, hiru hilean behin agertuko direnak, Muskizko informazioa etxe guztietara iritsi dadin. Horrez gain, SMS bidezko informazio zerbitzua abiarazi nahi dugu, herritarrengandik hurbil egoteko.

Bestalde, banakako parte-hartze ereduaren alde egingo dugu. Horretarako, aldian behin inkestak egingo ditugu herritarren interesak eta premia nagusiak zeintzuk diren jakiteko eta haien parte-hartzea bultzatzeko.

Horrekin guztiarekin, 2012 urtea ahalik eta ondoen hastea nahi dugu muskiztar guztientzat. Urte Berri On!

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Nagusientzako gimnasia-aparatuak San Joan Plazan

San Joan Eguneko Egoitzan ari den fisioterapeuta batek tokian bertan azalduko du nola erabili behar diren tresna horiek, makina bakoitzaren erabilera egokia zein den jakiteko

Aire zabaleko gimnasio bat balitz bezala, San Joan Plaza herriko nagusientzako aisialdi gune bihurtuko da, bertan jarri diren gimnasia tresnei esker. Ehun metro koadro inguruko azalera horretan, giharrak nahiz artikulazioak landu ahalko dituzte nagusiek, modu lasai eta eraginkorrean betiere.

Muskizen mota horretako parkea jartzen den lehen aldia da. Gainera, eta beste udalerrri batzuetan jarri diren aldean, fisioterapeuta bat ere egongo da bertan (San Juan eguneko zentroan); berak azalduko die, “in situ”, aparatu bakoitza nola erabili behar den. Fisioterapeutaren laguntzarekin,

nagusiak modu egokian erabiliko dituzte tresna guztiak; sarritan, izan ere, nola funtzionatzen ez dakitelako-edo ez dituzte instalazioak behar beste erabiltzen.

“Artikulazioak landu ahalko dituzte nagusiek, modu lasai eta eraginkorrean betiere”

Muskizko Udalak 30.000 euro inguru bideratu ditu gimnasia-aparatu horiek erosteko.

Jolastu euskaraz!



Gurasoek seme-alabekin euskaraz jolastera animatzeko kanpaina abiarazi du Muskizko Udalak.

Horretarako, zenbait informazio-panel ezarri dira Muskizko 16 parketan. Bertan, udaleko oinarritzko informazioaz gain (larrialdietarako telefonoa...), esaera, hitz edota jolas desberdinak jaso dira, seme-alabekin nahiz parkeko gainerako haurrekin euskaraz komunikatu daitezen.

Muskizek 850.000 euro bideratuko ditu enplegua bultzatzeko

Hauk dira Udalak abiarazi duen Enplegu Planaren helburuak: Muskizko herritarren prestakuntza, ekintzailetza eta enplegua bultzatzea. 850.000 euro inguru bideratuko ditu horretarako. Plan horren programa Lanbidek (Enplegurako Euskal Zerbitzua) eskaintzen duen enplegu programarekin batera garatuko da.

Udalak badaki enplegu arloko eskumenak Eusko Jaurlaritzaren esku daudela gehienbat. Hala ere, langabezia gora eta gora doala ikusita, ezin da egon konponbidea besteek noiz emango duten zain. Horregatik, Enplegurako Plana garatu da Muskizen.

Programa honek lau ildo ditu, eta horien bidez zenbait neurri hartuko dira enplegurako politika aktiboen arloan.

Prestakuntzaren atalean, Somorrostroko Hezkuntza Zentroarekin elkarlanean jardungo dugu. Udalerriko enpresek dituzten beharrak identifikatu eta herriko langabetuentzako prestakuntza planak zehaztuko dira, eskari horien arabera.

Kontratazioari dagokionez, 6 hilabeterako 24 lanpostu aurreikusten dira -Lanbidek eta Muskizko Udalak finantzatuta-, eta 6 hilabeterako 16 lanpostu, Udalak finantzatuta.

Azkenik, kontratazioarako eta ekintzailetzarako zuzeneko laguntzak ere sartzen dira Plan honetan. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza horien helburua da Muskizen erroldatuta dauden langabetuak kontratatzea, eta udalerrian jarduera berriren bat abiarazten duten pertsona eta enpresa ekintzaileei laguntzak ematea. Laguntza horiek guztiak eta Enplegurako Planaren garapena Forlaren bidez kudeatzen dira.

Neurri horiek aurre egin nahi zaio Muskizen eragin zuzena duen arazoari, langabezia-tasa %14tik gora baitago une honetan.

Kontratazioarako laguntzen kasuan, sortzen den lanpostu bakoitzeko 5.000 euroko



“Zuzeneko laguntzak Muskizen erroldatutako langabetuak kontratatzen dituzten enpresentzat



“Ezinbestekoa da langabetua Muskizen erroldatuta egotea

diru-laguntza izan daiteke, urtebeteko iraupena baldin badu lanaldi osoan eta enpresako langile kopuruaren hazkuntza garbia eragiten badu. Lan kontratuak urtebete baino gutxiago irauten badu edo lanaldi osorako ez bada, diru-laguntza proportzionala izango da.

Ezinbesteko baldintza gisa, honako hauek jarri dira: kontratatu beharreko langileek Muskizen erroldatuta egon behar dute 2011ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik; ezin dute bigarren gradurainoko odol-ahaidetasunik edo ezkontza-ahaidetasunik izan, ez bizikidetzatan uniterik osatu, titularrarekin edo bazkide nagusiekin (kapital sozialaren % 10 baino gehiago), ezta enpresa edo erakunde onuradunaren gobernu organoetako kideekin ere.

Plan honen arabera, enpresa bat abian jartzeko 4.000 euroko laguntza jaso nahi bada, proiektua bultzatzen duten artean gutxienez pertsona bat egon behar du Muskizen erroldatuta, 2011ko urtarrilaren 1a baino lehen.



San Joan eta Pobeñako komun publiko berriak

Orain arte Muskizko komun publiko bakarrak San Joanen zeuden, eliza ondoan, baina 15 urte zeramaten itxita. Horregatik, Udalak berriitu egin ditu komun horiek, auzokoek hala eskatuta. Erabiltzeko prest utzi diren komun horiez gain, Pobeñan ere antzeko beste ekipamendu bat jarriko da, aparkalekuaren eta jolas-parkearen ondoan.

San Joanen dauden komunek eta Pobeñan sortuko direnek erabiltzeko ordutegia izango dute, garbitu, txukundu eta egoera onean mantendu ahal izateko. 67.000 euro inbertitu dira guztira.



Gibako parkea

Gibako jolas-parkean hesi bat jarri da, esparrurako sarreran. Horrela, umeak ez dira parke ondoan dagoen errepidera irtengo. Gurasoak aspalditik ari ziren hori eskatzen. Horrez gain, eta hobekuntza gisa, iturri bat ere jarri da.

Ibilgailuen trafikoa berrantolatu da geltoki ondoko kale Berrian

Hirigintza eta Lanen Sailak eta Udal-tzaingoak elkarrekin egindako lanari esker, ibilgailuen trafikoa berrantolatu da geltoki ondoko kale Berrian. Auzo horretako herritarrek eragozpen handiak izan dituzte ibilgailuen trafikoagatik eta aparkaleku plazak antolatu gabe zeudelako.

Joan den urriaz geroztik, kale horietako zirkulazioaren noranzkoa bakarra da, eta, horrela, hainbat arazo kendu dira: auto-ilarak, txarto aparkatutako ibilgailuak eta beste eragozpen batzuk. Gainera, berrantolaketa horri esker, aparkatzeko plaza berriak sortu dira eta



minusbaliatuentzako plaza bat ere jarri da.



Aparkaleku-plaza berriak Antonio Trueban

Muskizko Udala lanean ari da mugikortasun mugatua duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko. Horretarako neurri zehatzak hartu dira, besteak beste, berariazko aparkaleku plazak minusbaliotasuna dutenentzat.

Lehen aipatu den kale Berriaren ondoan beste aparkaleku bat prestatu da. Horrez gain, bide horretan berrantolatu egin dira aparkaleku plaza guztiak eta zamalanak egiteko gunea.



Oztopo arkitektonikoak kendu dira El Crucero kalean

Muskizko Udalak konpromisoa hartuta dauka oztopo arkitektonikoak kentzeko eta mugikortasun mugatua duten pertsonen autonomia hobetzeko. Horretarako, asfaltozko gaineko pasabide bat jarri da El Crucero kaleko zebra-bidean. Neurri horrekin, gainera, ibilgailuek abiadura moteldu behar dute, eta oinezkoek segurtasun handiagoa dute kalea zeharkatzeko. Jarduera horrekin batera, prentsaren kioskoan dauden espaloiak eta euri-urak biltzeko hodiak konpondu dira.



Igogailua jarriko da La Cendeja eta Antonio Trueba lotzeko

Muskizko Udalak igogailu bat jarzea erabaki du La Cendeja kalea eta Antonio Trueba etorbidea komunikatzeko. Jarduera honen bidez, sarbide horretan dagoen oztopo arkitektonikoari konponbidea eman nahi zaio, zuzenean eragiten dielako adineko pertsoneri, mugikortasun urria duteneri eta ume karroekin edo erosketa gurditxoekin doazeneri. Izan ere, bide horrek duen malda handia dela-eta, itzulginguru luzea egin behar da hura saihesteko.

Igogailu hori La Cendeja kalearen ondoko aparkalekuan kokatuko da. Horrela, An-

tonio Trueba etorbidearekin lotuko da 60 metroko pasabide batekin.



El Ojillo kalezuloa hobetzea

Muskizko Udalak 75.000 euroko inbertsioa egingo du El Ojillo kalezuloa hobetzeko; horren helburua da oinezkoak erosoago ibili ahal izatea, zehazki, atari baterako eta garaje batzuetarako sarbidea emanda.

Aldaketa horrekin lehenetsuna emango zaie oinezkoen ibilgailuen aurrean; horretarako, galtzada asfaltatu eta oinezkoen lehenetsun gunea sortuko da, pintura berezi bat emanda, eta kalezuloaren alde batean espaloi zabalagoa eginda.

Obra horiekin batera, lorategi gunea eta paperontziak jarriko dira El Ojillo kalezuloan. Proiektu honekin Muskizko Udalak etxeetarako sarbide egokiagoa eta erosoagoa ipini nahi die herritarrei.

Ingurumena kontrolatzeko unitate mugikorra

Coke plantako probak egiten diren bitartean, ingurumena kontrolatzeko unitate mugikorra jarriko da abian; unitate horrek egiaztatuko du airearen balioak ingurumenari buruzko araudian ezarritakoak ote diren. Makina hori San Julian auzoan kokatuko da, eta bi hilabete barru hasiko da funtzionatzen.

Laborategi-unitate mugikor hori aitzindaria da European, eta konposatu organiko lurrunkorren multzoko 170 konposaturen neurriak hartu ditzake, 0,1 ng/m³-ko detekzio-mugarekin.

Kabina mugikor hori Muskizen lehenetik dauden beste bihurtuko zaie; horiek, ordea, finkoak dira.

Unitate mugikorraren bidez ingurumena kontrolatzeko kanpaina hau Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak egingo dute.



Ehun-gaiak biltzeko edukiontziek erabilera berriak izango dituzte

Rezikletak kudeatzen dituen ehun-gaiak biltzeko edukiontzia (berde kolorekoak) aldatu eta horien ordez handiagoak eta erabilera gehiagokoak jarriko dituzte. Jostailuak, liburuak, tresna elektriko txikiak, telefono mugikorak eta tresna elektronikoak utzi ahalko dira horietan. Edukiontzi berriekin aurreztu egingo da; izan ere, edukiera handiagoa dutenez, Udalak, kostu berarekin hobetu egingo du bilketa.

EL KAR RIZ KETA

Mendiz Mendi Taldea

Muskizko Mendiz Mendi Taldeak Nazioarteko II. Ziklo-kros lasterketa antolatu zuen joan den azaroan. Proba horrek Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren (UCI) sailkapenerako balio du, eta autonomia erkidego guztietako txirrindulariek hartzen dute parte, baita Estatuaz kanpokoek ere.

G/ Nolako izan da nazioarteko proba bat antolatzeko esperientzia?

E/ Guztiz positiboa. Bai Udaletik jaso dugun laguntzagatik, bai taldeek eta parte-hartzaileek egin diguten aitortzagatik. Erreferentziatzko proba da estatuan, eta 23 urtetik beherakoen kategorian bakarra, Igoerrekoaren atzetik, hura munduko kopakoa baita. Horregatik, segur aski, Muskizko lasterketa kategoria handieneko proba izango da Espainiako estatu osoan.

G/ Zer izan da Mendiz Mendi Taldearentzat kirol-ekitaldi hau antolatzea?

E/ Antolakuntzari dagokionez, Mendiz Mendi Taldeak zerbait gehiago egin nahi du



“Lasterketa honi esker Muskizko herria ezaguna da txirrindularitza-giroan

urtetik urtera; maila honetako kirol-ekitaldiak antolatuz gero, beti daukazu kritikak jasotzeko arriskua, baina orain arte behintzat positiboak izan dira beti.

Proba honi esker, estatuko txirrindularitza-giroan ezaguna da Muskiz, kirol arloan nahiz giza arloan txirrindulariei eta ikusleei egiten zaien harrera onagatik.

G/ Azkenik, nola amaitu zen nazioarteko lasterketa horren kategoria nagusia?

E/ Kategoria nagusia eliteena da. Aurtun Egoitz Murgoitio beste guztien gainetik egon da, eta bigarrenez irabazi du jarraian. Bestalde, oso interesgarria izan zen Bart Hofmanek eman zuen joko, Aitor Hernandez eta Isaac Suarezekin lehia. Azkenean, 26 urteko txirrindulari belgikarra bigarren postuan geratu zen, Isaac Suárezi sprintean aurrea hartu-

ta. Isaac hirugarren gelditu zen lasterketan.

Txirringaeskolan proiektua

G/ Zer proiektutan ari da Mendiz Mendi Taldea?

E/ Gure taldea, Muskizko Udalarekin batera, Txirringaeskola proiektuan ari da. Proiektu horren asmoa da bizikletaren kultura sartzeko gazteengan, eskola ingurunean bizikleta sartuta, eta neska-mutilei bizikletak dituen onurak erakutsiz.

Proiektu honen bidez, eskolako umeek bizikleta garraiobide gisa ezagutzeko aukera dute, bizimodu osasungarria eta kirola egiteko tresna delako aldi berean. P. Cantarranas, San Juan Bautista eta Muskizko Ikastolako 5. eta 6. kurtsoko 150 neska-mutilek hartu dute parte kirol-jarduera horietan.

Eskultura bat jarri da meatzaritza garaia gogoratzeko

Muskizko Udalak eta “Trueba” Enkarterriko Dokumentazio eta Dibulgazio Zentroak harri-zulatzailer baten eskultura jarri dute Meatzari Plazan, herri honek izan zuen meatzari garaia gogoratzeko.

Brontzezko eskultura bat, Las Carreras-eko Joaquin Alcalde eskultoreak egin; bi metroko altuera eta 300 kiloko pisua du. Eskultura horrekin Udalak aintzat hartu nahi du herriak izan zuen meatzari garaia, eta bide batez, gorazarre egiten die meategietan lan egin zuten familia guztiei. Eskultura hori Gallartako Meatzaritzaren Museoak emandako burdin harrizko idulki baten gainean dago ezarrita.



Futbol-zelai ondoko erreka garbitu dugu

Muskizko Udalak Cotorrio erreka lur azpiko tartea garbitu du, baita itxita zegoen Malekoiko kainua ere. Kainu horrek euri-urak biltzen ditu herriaren beheko aldean baitago-, eta horregatik, eurite handiak direnean, urpean gelditzen da La Cendeja kalea. Lan horiek egin ondoren, kainuak ederto bete du bere zeregina, eta ez da ur-putzurik egin inguru horretan.